

arriskua jasan beharraren arduran. Baina hegoaldeko euskalduna izanik, baietz betea ematen diot euroari. Ez euroaren eragin onuragarriak bultzata bakarrik, ez. Batez ere, euroaren atzean, alboan, goian, oinarrian diharduten jokaerak gure jokaerak garbiaraziko dituzten itxaropenean, urteen joan-etorrian. Eta gure kale eta enparantzak ere bai.

Euskal ipartarrei buruz, zera: gero eta antzekoago, elkartuago izan gaitezen egingo duela euroak, Behekoek irabaziz eta Iparrekoek ez galduz. Hori uste dut. Gu *afro*-runtz geratze-joatea, kolpe negargarria izango litzateke Euskadi osoaren elkartasunarentzat.

Euroaren eragin behin-behinekoak

Euroa dela-eta, bidegurutze bakoitzean kantuak eta negarrak entzungo dira. Bizitzearen arazoak. Baina goruntz doan bidean gabiltzanez, alaitzeko arrazoi sakonak ditugu. Euroak egia eta argia dakarkigu. Euroaren egiak askatu, indartu eta batu egingo gaitu. Euroaren hotsa musika da. Poztu gaitezen! ♪



Iñazio Irizar

Euroa eta enpresa industrialak

Real Casa de Moneda. Oñate. Octubre. 1875. C VII.

Horrela dio, alde bakoitzean, Bigarren Karlistadan On Karlos VII erregegaiaren Errege Moneta Etxeak, 1874-75 urteetan, Oñatin izan zuen txanpon-etxean egindako zilarrezko piezak.

Jakina denez, Euskadin izan dugun Moneta Etxe bakanak ez zuen asko iraun. Eta ia beti gertatu den bezala, ez borondate faltagatik, indarra eraginez baizik. Armada liberalak azkar asko desegin baitzuen makineria guztia, 1876ko martxoaren 3an Oñati menpean hartu zuenean.

Nafarroako Antso IV erregearen garaian, XI. mendean hain zuzen, eta ondorengo hainbat belaunalditan, istorio paretsuak aurkituko ditugu.

Iraganeko malenkoniak utzita, bizpahiru urtetik hona izugarritzko aztergaia bihurtu zaigu monetarena, euroaren jaiotza dela eta. Bruselak aspalditik dauka Ecu deritzan moneta, baina bere operazioetarako soilik, estatu bakoitze-ko monetez gain, hain zuzen, eta ez ordezko. Orain ostera, euro ospetsu hau ordezko datorkigu, eta hor sortu dira kalamatrikak.

Artikuluak, liburuak, tesiak, tesinak, hitzaldiak, mintzaldiak, zer ez. Ikerlariak, irakasleak, politikariak, finantzariak, enpresariak, nork ez. Mila iritzi, denak interes garririk, denak ukitutxo desberdinekin. Euskadin, Espainian, Frantzian, Alemanian, Erresuma Batuan, non ez. Bruselako *Le Journal Officiel*, edo *The Economist*, harantzago *The Wall Street Journal*, gaiak eman du, bai, zeresana.

Ba al dago ezer gehitzekorik, oraindik?

Atrebentzia handiegia ez bada, kaletar arruntaren ikuspuntu pare bat azaltzen saiatuko naiz, eta ondoren, ene iritziz euskal enpresa industrialen etorkizunean izan dezakeen eraginaz arituko natzaizue.

Kaletar bezala, aisialdia soilik kontuan hartuz, izugarritzko abantailak ikusten dizkiot euroari. Adibide bat jarztearen, duela gutxi Parisera joanak gara emaztea eta biok, opor motz batzuk profitatuz. Eta noski, pezetak gehi liberak eraman genituen, Visaz gain. Banketxeak legezko komisia kobratu zigun, noski, eta itzuleran berdin paperezko biletekin, txanponak ez baitituzte hartzen. Beraz, denbora, komisiaok, eta ailegatuko edo faltako zaizun betiko zalantza.

Garai batean, ez bakarrik moneta aldaketa, baizik eta baimena, pasaporteak, kontrola mugan, deskuidatuz gero *txapeoa*, eta abar ezeroso bat jasan behar izaten genuen. Guztiz agerikoa da, beraz, bizitza kalitate aldetik irabazi egin dugula, European zehar mugitu ahal izateko batere baliu erantsirik ez zeuzkaten ordu eta kudeaketa ugari alboratuz.

Badago hor, egon, beste abantaila subliminal bat: kontrolarena. Edo beste era batera esanda, norbanakoaren

libertatearena. Estatu guztiz ahaldunak gu kontrolatzeko miloi aunitz xahutzen zituen oraino, kontrolatzaileak, hauen arduradunak, arduradunen arduradunak, eta abarrek, ondo ordainduak zeudelako gure zergen kontura. Eta kontrolaz ari naizenean, ez daukat buruan poliziala soilik, ezin baikenuen diru kopuru jakina baino gehiago aldatu, baimenik gabe.

Zorionez, laster ez dituzte estatu kontrolatzaile garestiok gure mugimenduen inolako berri polizial zein finantzierorik izango.

Baina kaletar hego-euskaldun bezala, badago beste eragin sinboliko garrantzitsu bat. Gure heziketa garaian patrikan generamatzan txanponek zera zioten: «*Francisco Franco. Caudillo de España por la gracia de Dios*». Ondoren, hark utzitako Juan Carlos I erregea jaso genuen ordaintan, honek ere batere graziarik egin ez arren.

Egia da euroak ere alde batean estatu bakoitzeko ezaugarria izango duela, eta hegoaldean Borboiarekin jarraituko dugula, baina hori beste kontu bat da, Mauleko euroak Aguraingo dendan balio berbera izango baitu. Eta norberak aukeratu ahal izango du ezaugarri hori, sarri askotan bederen.

Kaletar euskaldunok baditugu gaur egun bertze mila buruhauste, kultura anglosaxoniarra (eta produktu asiati-koa) dabilelako merkatuan barrena nagusi ikus-entzunezko, Internet, eta abarretako esparruetan. Nahiko lan izango dugu, munduaren globalizazio honetan, dena auzo bihurtuko ote zaigun garai honetan, Espainiako eta Frantziako botere absolutu-nahi horietatik aldenduz beste berdintasun maila batean ez sartzeko.

Baina beno, estatu europar klasikoetako ezaugarri tin-koenak, hala nola ejerzitoa, polizia, soldaduska, mugak, moneta, atzerri politika, eta beste maila batean hizkuntza, hezkuntza, legedia, prentsa, telebista eta abarrek, aldaketa uniformetzaile/askatzaile prozesu kontraesankorreen darraite.

Euskal enpresa industrialei buruz jarraituko dugu. Eta alor hau aukeratu dut, ekonomiaren beste alor guztiei zor zaien errespetua gordez, nire ustez Euskadiko etorkizune-

rako giltzarria delako. Dena den, orokorki hartu beharrean, mugatu egingo dugu eremua, hots, Deba Garaiko Bailarako enpresa industrial pribatu transformatzaileetara.

Deba Garaian, hogeitahiru langiletik gorako 103 enpresa industrial zeuden 1997ko abenduaren 31n. Guztira, 16.570 lanpostu. Hauen arabera sailkatuz gero, 20-49 bitartekoak berrogei industria; 50-99 artekoak 32; 100-249 artekoak, berriz, hamabost; 250-499 artekoak hamabi; 500-999 bitartekoak bi; eta mila lanpostutik gorakoak beste bi.

Industria horiek atzerrian 53 bulego komertzial dituzte, 302 lanposturekin, 31 estatu ezberdinetan barreiaturik. Eta produkzio plantak berriz hamabost, guztira 1.423 langileekin eta honako lurralde hauetan kokatuta: Argentina (2), Kolonbia (1), Frantzia (3), Holanda (1), Italia (1), Maroko (2), Mexiko (2), Tailandia (1), Txekia (1) eta Txina (1).

Bailarako 103 enpresa industrial horietatik, bederatzitan dago atzerriko kapitala. Hirutan % 100 kanpotarra da, beste batean % 50 baino gehiago, bitan juxtu % 50, eta beste hirutan % 50 baino gutxiago. Lanpostuetara eramanez gero atzerriarren kapitalaren jabetza, beraien esku 1.334 lanpostu daudela esan genezake.

Azterketa egitera joanez gero, konpara ditzakegu emaitzak, adibidez, Bilboko ibai ezkerreko enpresa industrialekin? Eta Gasteizko industrialde berriekin, edo Tolosaldearekin? Konparaketak egin ondoren, eta enpresetan dauden faktoreen sailkapenak eginda, enpresa-arlo bakoitzeko, azter daiteke moneta aldaketaren eragina era kuantitatiboan?

Gaur egun Deba Garaiko enpresa industrialen produkzioaren heren bat baino gehiago atzerriko merkatuetara bideratzen da. Badira bi enpresa % 100 kanpora bidaltzen dutenak, eta dextente % 50tik gora. Beraz, atzerriko konpetentziara oso ohituta dauden enpresez dihardugu.

Saltzeko zein erosteko orduan, ahal den neurrian norberak ezartzen du moneta, nahiz eta multinazionalekin, beraien musikaz dantza egin behar. Salbuespenak salbuespen, iragan urteetan enpresetako atzerri moneta bezala dolara izan da nagusi, % 40 inguruko kuotan. Eta Japoniako yenarekin operazio gutxi batzuk egin arren, esan dezakegu beste % 60 Europako monetetan saldu/erosi dela,

honako sailkapen honekin: Frantziako libera, Alemaniako markoa, Portugalgo eskudoa, Italiako lira, Britainia Handiko libra, eta askoz apalago beste moneta batzuk.

Horrek zera esan nahi du, atzerriko kudeaketen % 60 «geure» moneta berrian egingo direla, euroan. Enpresa industrialek ez dutela, beraz, inolako balio erantsi gabeko lanik egin beharko % 60an. Argi eta garbi, ezertarako balio ez duten lan hauek ekidinez, kostuak murriztuko dituzte hainbat sailetan. Eta laburbilduz:

a) Finantza departamentuetan, aduradunaren kezka ugari alboratuko dira, lan ordu asko aurreratuz. Lan ordu asko, baita ere, diruzaintza eta bankuen eremua daraman enplegatuan, kontabilitateko oharrak dexente jaitsiko direlako, moneta bakarrak kontu bakarra eta tramitaziorik eza dakarrelako. Kontabilitate ohar jaitsieraren bigarren mailako ondorioak dira, baita ere, paper gutxiago erabiltzea, artxibo gutxiago, barne eta kanpoko ikuskaritza lan ordu gutxiago, eta balio erantsi gabeko kate luze bat.

b) Komertzial departamentuetan, enpresaren tamaina ertaina edo handia bada, kontabilitate komertzial enplegatu/departamentu berezia izango dute, 23 kasutan Deba Garaian. Aurreko puntuan esan dugun ia denak balio du honako ere.

Baina garrantzitsuena, kualitatiboki bederen, aurretik gure saltzaile eta marketinistek produktuen benetako balioa salduko dutela izango da, moneta hau edo bestearen indarraren menpe egon barik. Madrilgo menpekotasuna daukagu Deba Garaian, han aldatzen baitira gaur egun jarduera monetaristak. Hauek aldatzen dituztenean, gure komenientziak kontuan hartu barik, noski, moneta fluktuazio berrietara egokitu behar dira enpresak, barneko politika komertziala aldatuz.

c) Enpresa industrialen produktua piezak edo makinak dira, nahiz eta beraien zerbitzu enpresa garrantzitsuak ere egon Bailaran. Hiriburu printzipaletan, ordea, enpresa ugari daude produktu bezala dirua dutenak, eta komisioa edo interesa dira beraien ogibidea. Dirua salduz, edo erosituz, edo mailegatuz, oraingo edo etorkizuneko baldintzetan, bizi dira.

Deba Garaiko enpresek produktuak saltzeko kanpoko monetak erosi edo saldu beharrean aurkitzeak, beste enpresa horiei komisioak, interesak eta aseguruak ordaintzea daktarza. Aurrerantzean, salerosketen % 60tan atzerri moneta horiek ez erosteak, gastu dexente ekidingo ditu. Bergarako enpresa batek fresadora pareta jartzen baditu, lehena Aretxabaletako tailer batean, eta bertzea Kaiserslauterngo tailer batean, laster era eta kostu berdintsuan egingo du saltze operazioa, banketxe zein enpresa finantzieroen bitartekaritza asko murriztuz, gaurkoagaz alderatuz behinik behin.

Amaitzeko, hemendik hogeit urtera, Deba Garaiko gaurko 103 enpresen zerrenda hartuz gero, zelakoa izango da bilakaera? Monetak, euroak, garrantzi gutxi daukala deritzot. Oso bigarren mailan kokatuko nuke, enpresa industrialen etorkizunerako, ezinbestean ondo landu beharreko arloak beste hauek baitira:

- Produktu aldetik, kalitatea, zerbitzua, kostua eta berrikuntzak.
- Eredu aldetik, kanpora begira bezeroa nagusi, eta barrura begira partaidetza soziala, barne bezeroa.
- Antolamendu aldetik, sareak sortu, elkarlana, azpiegiturak.
- Eta orotara, pertsonak. Pertsona heziak, aktiboak, lanerako goiarekin.

Erraza da esatea; hamaika liburutan daude jasota dotore asko arlo horiei buruzko teoria ugari, baina ez dago zalantzarik gakoa praktikara eramatean dagoela. Lehiakorra izan behar du enpresak, alemanekin, japoniarrekin eta abarrekin diharduelako merkatuan.

Euroaren beste mila ikuspuntu ezberdin, norberaren interesetara murgilduko dira. Britainiarrek ez dute euroa nahi izango, Londongo *City*-k izugarritzko finantza irabaziak lortzen dituelako. Frantsesek, beraien frantses *grandeur* izaera galtzeko zorian dakusatelako. Espainiarrek, berdin samar. Alemaniarek, markoaren indarra ren abantaila galtzen dutelako. Eta abar oso luzea, bakoitzak demagogia gehiago edo gutxiagorekin esanda, baina bere etxea defendatuz.

Eta gu, euskaldun kaletar, edo enpresa industrial, estatu-hiriburu printzipaletako edozein politikatik hain urrun egonik? Gure interesak, lehen edo etorkizunean hobeto?¶



Antxon Lafont

Ezer gutxi gehiago euroari buruz

Mundu euroa pæko naturaltasun osoz heldu da euroa. 1998ko maiatzaren lehen egunetan, 3an zehatzago izateko, euroan sartzeko azterketaren inguruko era guztietako gertaeren berri eman ziguten hedabideek. Harrotasunak tentetuta ageri ziren hautagaiak azken argazkian, non guztien arteko enfatikoena kabitu ez zen. Bere bulegora itzuli eta berehala, euroaren klubean sartu zenez bere herrialdea ezin hobeto zihoala *urbi et orbi* berriro aldarrikatu beste erremediorik ez zuen izan. Total, hamabostetatik guztiek gainditu zuten azterketa, batek salbu. Horietarik hiruk ez zuten oraingoz klubean sartzerik nahi. Azterketa hori gainditzea, azken batean, batzuentzat Osakidetzako azterketa gainditzea izan zena baino errazagoa izan zen. Eta estatu espainiarrean dena txokolatezko dominekin amaitzen denez, euroaren guraso omen diren Santer eta Wemer-i Principe de Asturias saria —azkenean 60 urtetik gorako ia guztiei egokitzen zaien Nobel sari espainiar eskuzabala— eman zitzaien. Haurraren aitona-amonak eta birraiton-birramona defuntuak aipatzea ahaztu zitzaien, Europa ganbio gune librea baino gehiago bilakatzeko mekanismoen beharraren benetako aurreikusleak.

Euroan sartzeko azterketan moldatu egin ziren irizpideak. Liderrek, Frantziak eta Alemaniak, apenas betetzen zituzten baldintza guztiak, epaimahaiari gomendioak emanek eta presio eginez. Mirari italiarrak behartua zirudien. Balentria zirudiena —*euroteam*-ean sartzeari— lardas-